

# Hexalogoia edo jokamolde onaren kodea

Literatur itzulpengintzan begiratu beharreko sei aginduak\* .

## 1. Eskubideen gaineko lizentzia

Itzulpena erabiltzeko eskubideen gaineko lizentziak epe mugatua izango du: gehienez ere bost urterako izango da. Jatorrizko lanaren gaineko eskubideei buruzko lizentziak zeuzkan muga eta iraupen berberak izango ditu itzulpena erabiltzeko eskubideen gaineko lizentziak. Lizentziak hartzen duen eskubide bakoitza aipatu beharko da kontratuan.

## 2. Tarifak

Agindutako itzulpen-lan bakoitzagatik ordaindu beharreko tarifa bidezkoa izan beharko da, eta bizimodu duina izateko eta literatur kalitate oneko itzulpenak egiteko aukera eman beharko dio itzultzaileari.

## 3. Ordainketari buruzko baldintzak

Kontratua sinatzean, itzultzaileak aurrerakin bat jasoko du, gutxienik ordainsari osoaren heren bat. Gainerakoa, beranduenez ere, itzulpen osoa aurkeztean ordainduko da.

## 4. Argitaratzeko betebeharra

Argitaratzaileak, bestalde, kontratuan ezarritako epearen barruan argitaratuko du itzulpena, betiere itzulpen osoa aurkezten denetik bi urte igaro baino lehen.

## 5. Irabazietan parte izatea

Itzultzaileak bidezko parte izango du bere lanaren ustiapenak ematen dituen irabazietan, edozein dela ere horretarako modua, lehenbiziko kopiatik beretik hasita.

## 6. Itzultzailearen izena

Itzulpenaren egilea den aldetik, itzultzailearen izena aipatu egin beharko da jatorrizkoaren egilea aipatzen den guztietan.

---

\* Ikus agiri hau [ingelesez](#) eta [frantsesez](#) (bertsio ofizialak).